

**2013KO MARTXOAREN 22AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO  
OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hogeita bia.

**HILABETEA:** Martxoa.

**URTEA:** Bi mila eta hamahirua.

**HASIERAKO ORDUA:** goizeko zortziak.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Sei (6)

**MAHAIBURUA:** Koldo Agirre Mujika

**BILDUAK:** M<sup>a</sup> Mar Celaya González

Aitor Aldasoro Iturbe

Alfonso Segade González

Josi Insausti Mujika

Garbiñe Zurutuza Fernández

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA.** 2012ko abenduaren 20ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

**2.- KONTRATUAK ALDATZEA ETA LUZATZEA:**

- Beasaingo udalerriko udal lorategi, berdegune eta zuhaitzen mantentze zerbitzua.

Alkate jaunak 2013ko martxoaren 12ko zerbitzu batzordeko proposamenaren berri eman du:

***“Gaia: Beasaingo udalerriko udal lorategi, berdegune eta zuhaitzen mantentze zerbitzuaren kontratua aldatzea eta luzatzea.***

**AURREKARIAK**

*2009ko ekainaren 25ean, GOROLDI S.L.rekin kontratua sinatzen da aipatutako zerbitzua egiteko. Zerbitzua egiteko epea 4 urtekoa da, kontratua sinatu ondorengo egunetik aurrera eta, luzapena ahalbidetzen du bi aldeek espreski ala adostu ezker, luzapenak ezingo du guztira 2 urteak gainditu.*

*Udal lorategien mantentze zerbitzua kontratuaren eguneratzea egiteko, baldintza pleguko 6.artikuluaren arabera kontratuko prezioa urte hasieran eguneratu ahal izango da pasatako urtean EAEko KPI-aren arabera.*

Otsailaren 14ean eta martxoaren 6an Goroldi S.L.ek egindako idatzietan eskatzen du kontratua beste bi (2) urtez luzatzea eta eguneratzeak era honetan egin ditezela: "2013. urterako prezioa ez eguneratzea eta urte honetan ordaindu beharrekoa 2012. urtekoaren berdina izatea (BEZ kanpo), hau da, 238.956,94 €. Kontratuaren luzapen epean, prezioa pleguan adierazitako eran eguneratzea

2013ko martxoaren 6an eta 8an zerbitzu buruaren eta idazkariaren txostenak eman dira hurrenez hurren.

Horren ondorioz, Zerbitzu Batzordeak ondorengo erabaki proposamena egiten dio Gobernu Batzordeari:

**Lehenik.** 2013. urterako prezioa ez eguneratzea eta urte honetan ordaindu beharrekoa 2012. urtekoaren berdina izatea (BEZ kanpo), hau da, 238.956,94 €.

**Bigarren.** kontratua beste bi (2) urtez luzatzea, hau da, 2015eko ekainaren 25era arte, eta 2014 eta 2015 urteetan prezioa pleguan adierazitako eran eguneratzea."

- Udal eraikinen garbiketa zerbitzua.

Alkate jaunak 2013ko martxoaren 12ko zerbitzu batzordeko proposamenaren berri eman du:

**"Gaia: eraikinen garbiketari buruzko kontratua aldatzea eta luzatzea.**

**AURREKARIAK**

Udal eraikinen garbiketa zerbitzua 2010eko apirilaren 16an sinatu zen esleipen ireki baten ondoren, kontratuaren epea hiru urtekoa zen, eta beste hiru urte gehienez luzatu ahal izango da.

Esleipenean esleitzen zena, lan orduko prezio unitarioa izan zen. Esleipenean aurreikusten zen lan ordu kopurua 14.228 izan zen.

Esleipenean ateratako orduko prezioa 17 € izan zen.

Kontratuaren eguneratzea egiteko, EAEko KPI.ak izandako igoera aplikatu behar zaio indarrean dagoen orduko prezioari

Samsic Iberia S.L. empresak otsailaren 8an eta martxoaren 6an egindako idatzietan hiru (3) urteko luzapena eskatzen du eta kontratuaren orduko prezioaren eguneratzea era honetan egin dezala:

2013rako KPIaren %50ko igoera eta Murumendi ikastetxeko ezohizko leihoen garbiketa (kosterik gabe) eskaintzen du.

2014 urterako; KPIaren %75ko igoera eta Lizeo Alkartasuna ikastetxeko ezohizko leihoen garbiketa(kosterik gabe)

*Azkenik, 2015 eta 2016 urtetako eguneratzean KPI bere osotasunean aplikatuko litzaioke aurreko urteko orduko prezioari eta 2015 urtean udaletxeko eraikinean ezohizko leiho garbiketa (kosterik gabe) egingo luke.*

*2013ko martxoaren 6an eta 8an zerbitzu buruaren eta idazkariaren txostenak eman dira hurrenez hurren.*

*Ondorioz, Zerbitzu batzordeak ondorengo erabaki proposamena egiten dio Gobernu Batzordeari:*

**Lehenik:** *2013ko kontratuaren prezio eguneratzea egiterakoan 2012ko KPIaren %50ko igoera eta Murumendi ikastetxeko ezohizko leihoen garbiketa (kosterik gabe) eskaintzen du.*

**Bigarren:** *Kontratua 2016ko apirilaren 16arte luzatzea eta kontratuaren orduko prezioa era honetan eguneratzea:*

*2014 urterako; KPIaren %75ko igoera eta Lizeo Alkartasuna ikastetxeko ezohizko leihoen garbiketa(kosterik gabe)*

*2015 eta 2016 urtetako eguneratzean KPI bere osotasunean aplikatzea aurreko urteko orduko prezioari eta, 2015 urtean udaletxeko eraikinean ezohizko leiho garbiketa (kosterik gabe).”*

Proposamenen berri eman ondoren, bi puntuak batera tratatu dira eta hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ) ondorengo adierazi du: “Murrizketak kanpotik datozenean kritikatu egiten dugu, baina gero guk ere murrizketak aplikatzen ditugu. Orain proposatzen dena justifikatzeko nahi ditugun arrazoiak erabili ditzakegu, baina normalean horrelakoak langileengan izaten dute eragina. Kasu honetan esan dezakegu Udala patronala dela. Estutzen ari gara eta nahiz eta lan gehiago egin ez zaie ordaintzen.

M<sup>a</sup> Mar Celaya andreak (BILDU): “kontratazio berri bat egitea proposatzen zenuten, baina hori okerragoa da.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Nire ustetan kontratuaren aldaketa prezioarengan denean, funtsezkoa da. Horregatik aipatu zen agian lizitazio prozedura berria ireki behar zela.”

Josi Insausti jaunak (H1): “Nik ez dut lehiaketa berria egitea proposatzen eta hala esan nuen bai batzordean eta baita ere Plenoan, baina hemen gertatzen ari dena da kontratista batzuei prezioa eguneratu egiten zaiela eta besteei berriz, izoztu egiten zaie.”

M<sup>a</sup> Mar Celaya andreak (BILDU):” Zerbitzu arlotik enpresa denei esfortzu bat egiteko eskatu zaie.”

Alkate jaunak adierazi du, lorategien mantentze eta eraikinen garbiketa kontratuek aurrekontu-gastuen %10a suposatzen duela.

Josi Insusti jaunak (H1) galdetu du ea Igartzako multzo monumentalaren ustiapena aldatzearen ondorioz, Udalak izan behar duen kostua gune berdea garbitzeagatik suposatu behar duen GOROLDIren fakturazioa handitzea.

M<sup>a</sup> Mar Celaya andreak (BILDU) erantzun du azalduz GOROLDIrekin egindako kontratuan aurreikusita zegoela Igartzako multzo monumentalaren gune berdea mantentzea eta lan hori ez zutela egiten Igartzako ustiapenaren kontratuan betebehar hori sartu zelako. Orain berriro ere GOROLDIk egingo du lan hori baina lorategien mantentze kontratutik ondorioztatzen denetik kanpo ez du beste fakturarik aurkeztuko.

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE) proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (BILDU, PSE-EE/PSOE, ARALAR)

Aurkako botoak: 2 (EAJ, H1)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu dira bi proposamenak.

**3.- KONTRATUAREN ALDAKETA.** Beasaingo Udalaren zergak ikuskatzeko zerbitzua eta laguntza ematea.

Alkate jaunak, Hazienda batzordeko proposamenaren berri eman du:

*“GAIA.- Beasaingo Udaleko zergak ikuskatzeko zerbitzua eta laguntza emateko kontratuaren aldaketa (Expte.: 2010EKBO0047).*

### AURREKARIAK

1.- 2011ko otsailaren 4an Beasaingo Udalak GEMUNPAL, S.A. enpresarekin Beasaingo Udaleko zergak ikuskatzeko zerbitzua eta laguntza emateko kontratua sinatu zuen ondorengo baldintza ekonomikoekin:

- Egiaztatua eta ados bukatzen diren espedienteak: 0 €, ikuskatu den espediente bakoitzeko.

- Ikuskatze-prozeduran likidatutako kopuruak (kuotak gehi isunak gehi interesak) eta kobratuak, zergaduna etorkizunean zerga-errolde-tara sartzeara suposatzen dutenak eta etorkizunean jarraipena dutenak: ageriko kopuruen %70a.

- Ikuskapen prozeduran likidatutako eta ageriko kopuruentzat (kuotak gehi isunak gehi interesak) eta kobratuak, zergaduna errolde-tara sartzeara suposatzen ez dutenak, noizik behin zergapeko egitateak direlako eta banaka eta errepikatu gabe debengatzen direlako: ageriko kopuruen %35a.

2.- 2013ko otsailaren 21ko datarekin Gesmunpal, S.A. enpresak, Ikuskaritza prozesuan enpresak izandako emaitza baloratu ondoren, Udalak egindako iradokizunari erantzunez, ikuskatze-prozeduran likidatutako kopuruak (kuotak gehi isunak gehi interesak) eta kobratuak, zergaduna etorkizunean zerga-errolde-tara sartzeara suposatzen dutenak eta etorkizunean jarraipena dutenak %60ra jaisteko proposamena egiten du.

Honen aurrean, Hazienda Batzordeak Gobernu Batzordeari egiten dio ondorengo

#### PROPOSAMENA

GESMUNPAL, S.A.rekin 2011ko otsailaren 4an Beasaingo Udaleko zergak ikuskatzeko zerbitzua eta laguntza emateko kontratua aldatzea ondorengoan, hau da, Ikuskatze-prozeduran likidatutako kopuruak (kuotak gehi isunak gehi interesak) eta kobratuak, zergaduna etorkizunean zerga-errolde-tara sartzeara suposatzen dutenak eta etorkizunean jarraipena dutenak: ageriko kopuruen %60a.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, EAJko eta H1eko zinegotziek aurreko bi puntuetan adierazitako iritzia bera azaldu dute.

Besteak proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (BILDU, PSE-EE/PSOE, ARALAR)

Aurkako botoak: 2 (EAJ, H1)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu dira bi proposamenak.

#### **4.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera zortziak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.